

**ERTZAINZAREN 40. URTEURRENA
40 ANIVERSARIO ERTZAINZA**

2022-03-28 Barakaldo 28-03-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Garaikoetxea lehendakaria, Ardanza lehendakaria, lehendakariorde eta sailburua, herri agintari eta Herri ordezkariok; egungo eta iraganeko Sailaren eta Ertzaintzaren arduradunok eta kideok, jaun andreok egun on!

Lehenik eta behin, zorionak “GURE” Ertzaintzari.

“Gurea” da Ertzaintza, guztiona. “Gurea” hitzak argi eta garbi islatzen du Ertzaintzak zer ordezkutzen duen: hurbileko zerbitzua, autogobernuaren oinarri bat eta gizarteak berea sentitzen duen erakundea.

Sandra Ranea ari da ekitaldi hau aurkezten eta Ertzaintzaren espiritua zein den erakusten digu. Gaixotasun luze bat gainditu berri du, eta, hori egiten ari zen bitartean, Komisarioaren ikastaroa ere gainditu du. Sei urte darama Berdintasunaren arloan lanean. Gaur aitortzen dugun konpromiso-, sakrifizio- eta ahalegin-espirtua adierazten du.

Nolabait, bere belaunaldia izan daiteke 1936-ko Ertzañaren eta etorkizuneko Ertzaintzaren arteko zubia.

Ekitaldi honetan gure sustraiak aitortzen ditugu eta, horrekin batera, etorkizuneko erronkak, XXIgarren mendeko gizartearen nahiei, balioei eta beharrei hobeto erantzuteko.

1936ko urriaren 7an Agirre lehendakariak zina egin zuen eta urriaren 9an, Ertzaintzaren erakundea sortzen zuen Adierazpena sinatu zuen.

Entre los primeros compromisos que adquirió el Gobierno Vasco en octubre de 1936 fue la creación de “Un Cuerpo de Policía Foral, organizado de forma moderna y eficazmente, con arreglo a las necesidades presentes”. Nació la Ertzaintza, un instrumento poderoso con 750 hombres y sus dos primeras secciones de infantería y motorizada.

Hoy hacemos nuestro el espíritu que presidió su creación. Leo literalmente: “Este Cuerpo, por sus actuaciones, trabajos, desvelos y corrección despertará, no terror y hostilidad, sino admiración y cariño. Viene a ser salvaguarda del respeto, instrumento de tranquilidad y amigo del pueblo, por su ayuda, su orientación y su capacidad en la persecución del malhechor y en el restablecimiento de la paz allí donde fuese alterada.”

Hoy compartimos una mirada de reconocimiento al pasado, a nuestras raíces, con la proyección a futuro y la respuesta a las necesidades de la sociedad vasca del siglo XXI. Una sociedad comprometida con la igualdad, bilingüe, global y altamente digitalizada.

En este recorrido nos hemos detenido para recordar los años oscuros del terrorismo. Años en los que ETA asesinaba, amenazaba, coaccionaba, fijando entre sus objetivos también a la Ertzaintza. Asesinó a 15 Ertzainas y dejó decenas de víctimas. Trató de amedrentar a la sociedad y a la Ertzaintza. No lo consiguió.

Bakea eta bizikidetzatza sustatzea Ertzaintzaren eta gure Herriaren xede bat dira.

Zoritxarrez, egun hauetan giza eskubideen urraketa sistematikoa gertatzen ari da, oraingo honetan Europar Batasunaren muga berean. Gaur berriro diogu Ukrainaren alde bakarreko inbasio armatua gaitzesten dugula; baita justifikaziorik gabeko erasoaren ondorioak jasaten ari direnekiko elkartasuna adierazi ere.

Ekitaldi honetan gure iragana gogoratzen ari gara eta etorkizunari itxaropenez begiratzen diogu.

Ertzaintza ahalegin kolektibo baten bidez aurrera egiten duen trainerua da. Atzera begiratzuz egiten dugu aurrera, jasotako ondarea aitortuz: 1936 urtean Ertzaña sortu zen; ondoren, Gernikako Estatutua onartu eta Ertzaintza berreskuratu genuen Foru tradizioan oinarrituta, Mikelete, Miñoi eta Foralak eguneratuta, erronka berriei erantzuteko.

Orain, 40 urte ondoren, gizarte modernoaren erronkei aurre egiteko helburuarekin bat egiten dugu: Europan integratzeko, prebentzioa indartzeko, digitalizazioa zabaltzeko edo berdintasuna sustatzeko.

Valoramos nuestro pasado y miramos al futuro con esperanza. Reconocemos a todas las personas que han formado y forman parte de esta institución.

Reconocemos vuestra vocación y compromiso con los derechos fundamentales y las libertades públicas:

- la protección ciudadana, con una labor asistencial permanente;
- las labores de inteligencia y prevención;
- la investigación y resolución de los delitos;
- el rescate de personas en peligro.

La Ertzaintza cuenta con una alta valoración de la sociedad vasca.

Hoy sentimos el orgullo de celebrar juntos la fortaleza de una institución que nace del pueblo vasco y sirve al pueblo vasco.

Vuestro compromiso, sacrificio y esfuerzo merece nuestro más profundo reconocimiento y agradecimiento. Las nuevas generaciones tomarán el testigo y serán receptoras de vuestra experiencia, conocimiento y valores.

Ezinbesteko erakundea zarete gure gizartean.

Gaur, Ertzaintzaren ibilbidearen eta izen onaren harrotasuna partekatzen dugu. Zuen konpromisoak, sakrifizioek eta ahaleginek merezi dute gure aitortza eta esker onik sakonena.

Zorionak Ertzaintzari eta urte askotarako!